



NAFARROAKO MENDIALDEKO IKA
EUSKALTEGIEN EUSKARA ALDIZKARIA

ETXETIK PLAZARA

IKUSI ETA IKASI



SARIA:
URDAZUBIKO
NIKOLAURENEA
ERRETEGIAN BI
LAGUNENTZAKO
OTORDUA

2019ko BURUILA

164. ALEA

ZER DIO?

Etxetik Plazarako irakurle, ba al dakizu zer diren eskola alternatiboak? Bada, Maitexa Aincy senpertarrarekin solastatu gara horri buruz. Etxalarren urte batzuk eman ondotik, bere hezkuntza proiektu propioa garatzeko asmoz, Urruñara egin zuen salto. Egun, egitasmo berri horretan dihardu buru-belarri. Honako hauek kontatu dizkigu:



1. Zer dira eskola alternatiboak?

Estatu frantsesean, estatuarekin kontratutik kanpo diren eskola guztiak dira eskola alternatiboak. Horrek erran nahi du eskolek ez dituztela hezkuntza nazionaleko programak segitzen. Eskola alternatibo mota asko daude; hona hemen eredu batzuen izenak: Waldorf-Steiner eskolak, Montessori eskolak, Basoeskolak, eskola demokratikoak, eskola aktiboak...

2. Nola ailegatu zinen hezkuntza-modu horretara?

Duela hamar urte, hezkuntza nazionaleko irakasle bilakatu nintzenean, hainbat pedagogiarekin lan egiten nuen jada (Freinet izenekoarekin, errate baterako). Uste dut martxan jartzen duzun pedagogiak zure ikusmoldearekin zerikusia duela. Pentsatzen baduzu gizarte eta haur batentzat muga, ordena, lehiaketa, errespetua eta obedientziak balore garrantzitsuenak direla, orduan, pedagogia mota bat bermatuko duzu. Aldiz, kooperazioa, sortzeko gaitasuna eta norberaren ezagutzari lehentasuna ematen badiezu, orduan, ez duzu zure gelan berdin jokatu. Hezkuntza nazionalean, iduritzen zitzaidan ezin nuela nahi nuen pedagogia garatu. Adibidez, haurrekin astean behin naturan ezin ginen egon, nahi nuen Montessori materiala ezin nuen erosi, 25 hurrez osatutako gela batean bakoitzak behar duen arreta eta seguritate emozionala ezin nuen eman...

Horrek kalte egiten zidan; "disonantzia" bat bezala bizi nuen. Bi aukera nituen: edo burua makurtu eta segitu "ontzi hunta, kili-kolo" (Unama taldeak erraten duen bezala), edo askatasuna hartu eta ekintzetara pasatu.

3. Berriki zeure eskola sortu duzu. Nolakoa izan da prozesua?

Urruñan sortu zen 2018ko abenduan: Erlaitza eskola aktiboa. Prozesu luzea izan da eta da (ez da bukatua, ez dakit inoiz akabatuko den :). Uste dut prozesu luze hori beharrezkoa dela. Tresnak jasotzeko eta nork bere burua lantzeko prozesua izan da. Errango nuke Komunikazio ez bortitza (KEB) dela proiektu honetako zutabea. Gure eguneroko talde bizitzan laguntzen gaitu. Azpimarratzekoa da Urruñako herria laguntza handikoa izan dela; administratiboki, batez ere.



4. Zertan datza zuen pedagogia?

Gure pedagogia aktiboa deitzen da. Aktiboak erran nahi du haurren beharretatik abiatzen garela eta beraien erritmoa errespetatzen dugula. Haurrak ikasteko gogo naturala dauka; gure lana "su" hori ez itzaltzea da. Laburbilduz, ingurumen egituratua proposatzen dugu, Montessori materialaz osatua. Gero, zientzia-, sorkuntza-, musika-tailerrak proposatzen dizkiogu haurrari, baita naturarekin harremantzeko momentuak ere (astean behin gutienez).

Helduak behaketa jarrera bat dauka, haurren beharra zein den ongi ulertzeko. Haurren emozioei harrera egiten zaie. Azken puntua garrantzitsua da: elkar-heziketa. Datozkigun gurasoei formatzeko galdegiten zaie, bai haurren emozioen harreran, bai KEBen.

5. Zer familia motak hartzen du parte proiektu horretan?

Familia desberdinek parte hartzen dute. Gure hilabeteko kotizazioa apala denez, edozein guraso hurbil daiteke gure proiektura. Orain, gurekin dauden gurasoen artean aurkitzen dira bai nekazariak, bai arkitektoak.

6. Zer gabezia ditu ohiko hezkuntza sistemak?

Uste dut bi ereduak ezin direla konparatu. Gure ereduaren hezkuntza-paradigma aldaketa bat da. Haurrak, helduak, ikasgaiak ez dira berdin planteatzen eta kokatzen. Hala ere, nik uste ohiko hezkuntza sisteman falta dena irakasleen entzuketa dela. Irakasle askok sufritzen dute. Irakasle bezala zeure emozioak entzutea, zeure burua lantzea ezinbestekoa iruditzen zait, harremana baita gure lanaren erdigunea. Lan hori norberaren ardurapean utzia da; aldiz, harremana zaintzea konpetentzia profesionala da. Oraindik kontzientzia falta dago arlo horretan.

7. Zer egiten ahal da gabezia horiei aurre egiteko?

Lanketa pertsonala hezitzaile profesionalen formakuntzan sartzea izango litzateke abiapuntua. KEB biziki tresna interesgarria iduritzen zait adibidez, baina, segur aski, beste batzuk ere egonen dira.

8. Nola ikusten duzu ohiko hezkuntza sistemen etorkizuna?

Ohiko hezkuntza sistema beti mugimenduan dago; irakasle eta formatzaile askok mugimendu horretan eragiten dute. Denon ongizaterako pausuak emango diren esperantza dut, eskolak ez baitu sufrikario tokia izan behar ez helduentzat, ez haurrentzat.



LAN eta LAN

ZENBAIT ADITZ BEREZI

Elkarrizketan, Maitexak honako hau erran digu komunikazio ez bortitzari buruz solasean ari zelarik: «Gure eguneroko talde bizitzan laguntzen **gaitu**». Nola erranen zenuke zuk; “laguntzen **gaitu**” edo “laguntzen **digu**”? Bada, “**lagundu**” aditzarekin bi kasuak ongi daude: lehenbizikoa, **nor-nork** formakoa da; eta, bigarrena, **nor-nori-nork** formakoa.

Hori bera gertatzen da “**sinetsi**”, “**abisatu**” eta “**deitu**” aditzekin ere. Oro har, iparraldean, nor-nork motako aditz-laguntzailea erabiltzen da (“laguntzen gaitu” kasua bezala), eta, hegoaldean, nori partikula gehitzen zaio (“laguntzen digu”).

Hortaz, ikasgaia aipatutako lau aditzak pixka bat lantzeko aprobetxatuko dugu. Horretarako, esaldi batzuk prestatu ditugu. Zure lana esaldiak berridaztea izanen da, nor-nork formako esaldiak nor-nori-nork forman emateko, eta alderantziz. Lehenbizikoa guk egin dugu adibide gisa:

0. Bertzeek ez naute (ni) sinesten, baina zuk bai, beharrik!

Bertzeek ez didate (niri) sinesten, baina zuk bai, beharrik!

**ERNE,
SARIRAKO!**

1. Lagunduko gaituzu mandatuak etxera igotzen.

2. Abisatu didate lagunduko gaituztela erranez.

3. Irakasleak ez dio Aneri sinetsi, baina niri sinetsi dit.

4. Lehengusua deitzen baduzu, eman goraintziak nire partez.

5. Lagunduko nauzu, faborez? Ez naiz kaxa horretara ailegatzen.

6. Amaiak ez gaitu abisatu bilera gaur zela.

7. Polizieiei deitu diegu, baina ez digute lagundu.

8. Deitzen badidazu, lagunduko zaitut, bertzela ez.



Maitexari egindako elkarrizketan ezagutu dugu eskola aukera anitz badirela: *“Waldorf-Steiner eskolak, Montessori eskolak, Basoeskolak, eskola aktiboak, demokratikoak...”*. Guztiek bertze pedagogia eta metodologiak erabiltzen dituzte. Gure ohiko hezkuntza sistematik urrun daude, nahiz eta gero eta entzunagoak egiten zaizkigun. Hain zuzen ere, Montessori eskolari buruzko zertzelada batzuk emanen ditugu ondoko testuan. Eta kasu eman, hitz batzuk kendu eta behean jarri ditugu. Aukerarik zuzenena asmatu beharko duzu.



Maria Montessorik (1870-1952) sortu zuen hezkuntza edo pedagogia hau. Haurren askatasunean, autonomian eta auto-garapenean oinarritutako hezkuntza metodoa da. Hezkuntza honetan Irakasleak baliabideak eman behar dizkio ikasleari bere ikaskuntza prozesua gara dezan, baina, ezin dute prozesu horretan eskua sartu, umearen garapenaren gidari soila bihurtzen da. Haurra bere garapenaren _____1_____ bihurtuko da, eta aldi berean, bizi den inguruan _____2_____ lortuko du.

Aipatu bezala, metodologian umea prozesuaren erdigunea da, protagonista, bakoitzari bere beharren eta garapenaren arabera ekintzak planteatzen zaizkie. Ikasleen artean ez dago lehiarik, adin desberdinetako haurrak batera egoten dira. Horren eraginez, gizarte trebetasunak eta berdinen arteko ikaskuntza garatzen dute beraiek baino nagusiagoak diren umeak imitatuz. Ondorioz, horrek pertsonenganako empatia garatzen laguntzen du eta kompetentzia elkarlan bilakatzen da. _____3_____, sormenaren bitartez inguruan dituzten aukera desberdinak esperimenta _____4_____ eta horren bidez gertaera desberdinak ikusi eta bizi ahal izateko gaitasunak garatzen dituzte.

Horretarako, ingurumenaren esperimentazio eta objektuen manipulazioaz baliatzen dira. Umeek bizipenak eta esperientziak, norberarentzat baliagarria izango den jakintza bihurtu eta mentalki erreproduzitzeko gaitasuna garatzen dute. Metodo honek haurren garapenarentzat duen beste alde positibo bat, banakako ikaskuntza eta curriculum egokituak izango _____5_____. Hau da, irakasleak umearen beharren arabera hainbat ekintza planteatzen dizkio ikasleari, baina ikaslea izango da burutu nahi duen ekintza aukeratuko _____6_____. Ondorioz, erabakiak hartzeko independentzia izango du eta bere gustu eta gaitasunak kontuan hartuko dira. Bestalde, irakasleak prozesu horretan ez du esku hartuko, umearen askatasun maila hobetzeko helburuarekin, bere eginbeharra prozesua erraztea izanen da. Horrez gain, esan beharra dago metodo honek ez duela hezkuntza sistemaren trinkotasunean eta curriculum itxietan sinesten, defendatzen duena zera da, haurrek sentitzen duten autonomia behar hori, zentzumenen bitartez hezte, beti ere, metodo zientifikoetan oinarrituz.

Ikaskuntza garatu bitarteko momentuak arrunt sentikorrek izanen dira eta horiek haurren garapen naturala errespetatzea izanen dute helburu: ordenarekiko, hizkuntzarekiko, ibilerarekiko, bizitzaren aspektu sozialekiko, objektu txikiekiko, zentzumenen bidezko sentimenekiko ...

Azken batean, _____7_____ jaiotzen den unetik zentzumenen bitarteko informazioa jasotzen du. Hasieran, entzumena eta ikusmena aktibatua du, gero mugimendua garatzen doan heinean, gutxika, uki-menarekin joango da informazioa bereganatzen. Haurrak bere independentzia gara _____8_____ eta ingurumenarekin harremanetan jartzeko, beharrezkoa da mugarik ez jartzea.

1. a) protagonistan
b) protagonistatan
c) protagonista

2- a) egokitzeo
b) egokitzea
c) egokitzen

3- a) Haurrak
b) Hurrek
c) Haurra

4- a) ditzakete
b) dezakete
c) daiteke

5 - a) lukete
b) litzateke
c) lirateke

6- a) duela
b) duena
c) duenik

7- a) umeak
b) emeek
c) umea

8- a) dadin
b) dezaten
c) dezan

KANTU KANTARI



Gailu elektronikoaren garaietan ere gure herrietako tradizioan erabili izan diren haur kontuek eta kantuek bere tokitxo beharko lukete; azken finean, familian gozatzeko erabili izan baitira: eskuekin, hatzekin edo hankekin jostatzeko, laztantzeko eta mina arintzeko, trostan ibiltzeko, gure txikitxoak lokartzeko, memoria lantzeko eta bertze hainbat eta hainbat egoera lantzeko. "Xaldun Kortin, jolastu gurekin" liburutik sortatxo bat atera dugu eta osatzeko behetiko hitzak beren tokian sartu beharko dituzu.

a- gogorra
b- azeritxoak

c- elizan
d- nongo

e- mandoko
f- franko

g- otsoak
h- kukuso

Hankekin jostatzeko:

Xangoko-mandolo,
haur han ____1____?
ona bada, guretako
gaiztoa bada, Markalaingo.
ez dudala beharrik,
baditudala ____2____!
Orduan?
Putzuan beheiti botatzeko

(Bera)

Trostan ibiltzeko:

Arre-arre ____3____!
Bihar Iruñerako,
etzi Tolosarako.
Handik zer ekarriko?
Mandoa bete ____4____.
Haiek denak norendako?
Haiek denak-denak-denak...
Maitetxu(re)ndako!

(Zubieta)

Lokartzeko:

Atzo ttun-ttun
gaur ere ttun-ttun,
beti ttun-ttun
gaitun gu.
Zazpi librako
oilo xuria
____5____
jan digu.
Atzo ttun-ttun,
gaur ere ttun-ttun,
beti ttun-ttun
gaitun gu.
Azeritxo
tripa beteta
____6____ jan du
Mendian.

(Etxalar)

Zotz egiteko:

Bin, ban, boieran,
bolera ____7____.
Han zer zebilen?
Pettiri buru ____8____.
Non da gure behorra?
Hik aizkora, nik aizkora,
bota dezagun
gure behorra
erraz gora!

(Lekarotz)



ERANTZUNAK

BITXILOREAK (5. or.):

1- c; 2- b; 3- a; 4- a; 5- c; 6- b; 7- a; 8- c

KANTU KANTARI (6. or.):

a- 8; b- 5; c- 7; d- 1; e- 3; f- 2; g- 6; h- 4

163. aleko sariketa erantzunak – BITXILOREAK (5. or.):

1- g; 2- f; 3- h; 4- e; 5- i; 6- c; 7- d; 8- b; 9- j; 10- l; 11- k; 12- a

ETXETIK PLAZARA lehiaketa

Gure lehiaketan parte hartzeko, ariketa baten erantzunak bidali beharko dituzu. Ale honetan, **4. orrialdeko** erantzunak dira beheko aldera pasatu beharrekoak. Marratik moztu eta postaz bidali azkeneko orrialdeko helbideren batera. Hurrengo alean ariketa horren erantzuna eta sariaren irabaz-learen izena agertuko dira.

Saria: **Urdazubiko
NIKOLAURENEA erretegian
bi lagunentzako otordua**

163. aleko irabazlea:
**Miren Inda Jorajuria
Donamariakoa**

ETXETIK PLAZARA liburua **DEBALDE!!**

Eska ezazu,
Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldeko
IKA euskaltegietan



OHARRA: erantzunak urriaren 10a baino lehen bidal itzazu.



SARIRAKO ARIKETA

EP 164 (2019/09)

LAN ETA LAN (4. or.):

- 1 - _____
- 2 - _____
- 3 - _____
- 4 - _____
- 5 - _____
- 6 - _____
- 7 - _____
- 8 - _____



EUSKARAREN KILIKA!!

alaia eta jostaria
alegre y divertido

freskoa eta naturala
fresco y natural

bixia eta osatua
estimulante y completo

ikas eta ari / aprende euskera

klasikoa eta berritzailea
clásico e innovador

euskararen kilika

Matriculikate

ika
euskararen errazago egiten

[ikauskaltegiak.eus](https://www.ikauskaltegiak.eus)

Aldizkari honen egileak:

**Bortziriak eta
Malerrekako IKA
Euskaltegiak**

Diseinua, marrazkiak
eta maketazioa:

Joseba Larratxe

Laguntzaileak:

**Nafarroako
Mendialdeko
EUSKARA
MANKOMUNITATEAK**

Zatoz EUSKARAREN kilika sentitzera!!

Zeure herrian, urritik ekainera, astean 4 edo 6 ordu
MAILA GUZTIAK eta EGA, ON LINE ere bai

DEBALDE!!

MATRIKULA ZAITEZ irailaren 30a baino lehen!!

IKAbortziriak, 948 637 796, bortziriak@ikauskaltegiak.eus

IKAmalerreka, 948 451 555, malerreka@ikauskaltegiak.eus

ZOZKETARAKO DATUAK

Izen-abizenak:.....

Helbidea:..... Herria:.....

Telefona:..... Adina:.....

HORRA GURE HELBIDEAK

Bortziritako IKA Euskaltegia.
Arretxea 22, 31770 Lesaka.
bortziriak@ikauskaltegiak.eus

Malerrekako IKA Euskaltegia.
Rosa seminario 6, behe, 31740 Doneztebe.
malerreka@ikauskaltegiak.eus

ika